

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu Sartu

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://urolakosta.hitza.eus/cookieak/)

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024045&ckid=5784961765964326159&uii=248081666541949587&acd=1559632261067&pubid=15&tmstp=8847001989&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systrgt=%2biriken-suspertze-eta-lehen-sorospen-ikastaroak-emango-ditu-dyak-azpeitian%2f&go=http%3a%2f%2fwwww.iragarkilaburrak.eus)

Bihotz-biriken suspertze eta lehen sorospen ikastaroak emango ditu DYAK Azpeitian

(https://www8.smartadserver.com/click?u=https://urolakosta.hitza.eus/azpeitian/bihotz-biriken-suspertze-eta-lehen-sorospen-ikastaroak-emango-ditu-dyak-azpeitian%2f&go=http%3a%2f%2fwwww.iragarkilaburrak.eus)

Azpeitia (https://urolakosta.hitza.eus/herriak/azpeitia/)

Gizartea (https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Sorospen ikastaroa hilaren 14an izango da, eta bihotz-biriken suspertze tailerra urtarrilaren 19an. Sorospen saioan edonork parte har dezakete, eta doakoa da. Bihotz-biriken suspertze tailerra, berriz, familiei zuzendutakoa da, eta 17 urtetik gorakoek zortzi euro ordaindu beharko dute. Bi ikastaroak DYAK Azpeitian duen ordezkari-taldeak, Urola kalean, izango dira.

2019 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/01 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/01/09 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/01/09)

Urola Kostako Hitza (https://urolakosta.hitza.eus/sinadurak/urola-kostako-hitza/)




(http://urolakosta.hitza.eus/site/files/2019/01/BBS_content.png)

DYAK bi ikastaro antolatuko ditu Azpeitian urtarrilerako: lehen sorospenena eta bihotz-biriken suspertze teknikena. Ongizatea eta osasuna sustatzeko egiten duen lanaren barruan antolatuko dituzte saioak DYAKen Irakaskuntza Eskolak, eta lehen sorospen ikastaroa hilaren 14an, astelehena, izango da. Doako saioa 19:00etatik 21:00etara izango da, eta larrialdien edo istripuen aurrean zer egin eta zer ez egin irakatsiko dute bertan. Besteak beste, itolarrak, zauriak, erredurak, traumatismoak, bularreko minak, isurketak, garuneko tronbosiak, konbultsioak, konorte galerak... izango dituzte hizpide.

Bigarren ikastaroa, bihotz-biriken suspertze tailerra, urtarrilaren 19an, zapatua, izango da, 17:00etatik 19:00etara. Familientzat prestatutako saioa izango da, eta helduek nahiz 6 urtetik gorako umeek eman dezakete izena -heldu bakoitzak hiru umekin batera parte hartu ahal izango du-. "Modu erraz eta praktikoan" irakatsiko dute bihotz geldialdi bat identifikatzeko eta horren aurrean jokatzeko. Saioa zortzi euro ordaindu beharko dute helduek, eta 17 urtetik beherako haurrek nahiz gazteek doan parte hartu ahal izango dute tailerrean.

Bi ikastaroak DYAK Azpeitian duen ordezkari-taldeak, Urola kalean, izango dira. Izena eman edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu dezakete.

Azken 7 egunetako irakurrienak



(https://urolakosta.hitza.eus/2019/05/31/hiru-urte-eta-erdiko-espertxe-zigorra-getariako-taberna-bateko-zarataren-auzian/)

Getaria (https://urolakosta.hitza.eus/herriak/getaria/) Gizartea (https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Hiru urte eta erdiko espertxe zigorra ezarri diote gazte bati, Getariako taberna bateko zarataren auzian (https://urolakosta.hitza.eus/2019/05/31/hiru-urte-eta-erdiko-espertxe-zigorra-getariako-taberna-bateko-zarataren-auzian/)

2019 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/05 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/05/31 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/05/31)

Dorleta Agiriano Lai (https://urolakosta.hitza.eus/sinadurak/dorleta-agiriano-lai/)

Tokiko informazioa profesionaltasunez eta euskaratik, modu librean kontatzen dugu. Informazioa zure ekarpena beharrezkoa da, eta ongi maitatzeko modurik zintzoena da HITZAKide egitea.

egin zaitez HITZAKide (https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/izan/)